

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO  
EUSKAL PROGRAMA**

**JARRAIPEN-MISIOA  
KOLONBIA 2016**



**2016ko urtarrilaren 17tik 22ra bitartean**

Txostenaren egilea:

Leire Lasa Fernández.



Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa



Bilbao, 2016.

## EDUKIEN AURKIBIDEA

SIGLAK.....	4
AURKEZPENA.....	5
ESKER ONA.....	6
OSAKETA.....	7
IZANDAKO BILERAK.....	8
TESTUINGURUA.....	11
GIZA ESKUBIDEEN ERAKUNDEAK.....	17
EGOERA ESPEZIFIKOAK: ALDI BATEZ BABESTEKO EUSKO JAURLARITZAREN.....	21
PROGRAMAREN PEAN HARTUTAKO PERTSONEN ERAKUNDEAK.....	26
NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.....	31
ONDORIOAK.....	34

## SIGLAK

INBGB: Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Batzordea

AUC: Kolonbiako Autodefentsa Batua

BACRIM: Nabarmentzen Hasiak Diren Talde Kriminalak

CERREM: Arriskuak ebaluatu eta Neurriak Proposatzeko Batzordea

CIDH: Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra

CoIDH: Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra

NZA: Nazioarteko Zigor Auzitegia

CTI: Ikerketa-Talde Teknikoa (Kolonbiako Fiskaltza Nagusia)

NZH: Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa

ELN: Nazio Askapenerako Armada

ESMAD: Istiluen aurkako Eskuadroi Mugikorra (Polizia Nazionala)

FARC-EP: Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak

MOVICE: Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendua

NBGEGKB: Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa

UNP: Babeserako Unitate Nazionala

## AURKEZPENA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak martxan du, 2011z geroztik, Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko programa. Programa horren barruan, gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditu jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak edo horren arriskuan daudenak, giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik. Nazioartean dituen laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, Euskadin egingo duten sei hilabeteko egonaldiako ekintza hauek proposatzen dira:

1. Laguntza psikosoziala: Babesaren ikuspegi integrala lantzen du, eta honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inpaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, aldi batez herrialdetik irten eta sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa: Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horretaz gainera, programak balio du euskal herritarrei eta bertako erakunde publikoei — eta baita Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda: Haien kezkek eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenaz. Egin duten lanagatik aitortza jaso duten pertsonak direla kontuan izanda, txostengile gisa ere hartuko dute parte esparru akademikoetan eta sozialetan.

Programa CEAR-Euskadik koordinatzen du, eta hautaketa Batzordearen bitartez, honako hauek ere sartuta daude programan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpoko Ekintza Zuzendaritza, Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEren Koordinatzailea eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa. Gainera, ANSUR Kolektiboaren laguntza du, segurtasunarekin eta babesarekin zerikusia duten kontuak kudeatzeko.

Jasotako bi pertsona Kolonbiara itzultzearen harira, Euskal Ordezkaritza bat joan da Kolonbiara urtarrilaren 17tik 22ra, beren egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko, beren segurtasun-sarea indartzeko eta euskal gobernuaren, legebiltzarraren eta antolatzaileen babesa erakusteko.

Txosten honetan bisitako konturik esanguratsuenak jasotzen dira. Testuingurua atalean, herrialdearen egoeraren ikuspegi orokorra ematen da. Giza eskubideen erakundeetatik, instituzio publikoetatik eta nazioarteko erakundeetatik jasotako informazioa ondorengo ataletan jasotzen da. Azkenik, Euskal Ordezkaritzaren analisia, balorazioak, kezka zehatzak eta gomendioak azken atalean jasotzen dira, Ondorioak izenpean.

## ESKER ONA

Aldi Batez Babesteko programa eragin politikodun babes tresna bat da, jazarpen eta mehatxu testuinguruetan giza eskubideak babesten lan egiten duten defendatzaileentzat. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta ordezkartzak lurra bisitatzeko proposatzen dugu.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarri egindakoa, ekarpen baliagarria da gure berradiskidetze-eraldaketa sozialaren prozesuetarako.

Euskal Ordezkartzak eskerrak eman nahi dizkie giza eskubideen aldeko elkarteei eta Kolonbiako gizarte- eta herri-mugimenduei ere, egindako harrera apartagatik eta bakea eta justizia soziala lortzeko egindako salaketa eta proposamenengatik ere. Eskerrak, bereziki, Joel Sierra Giza Eskubideen Fundazioari, Bakearen eta Kolonbiako Emakumeen Eskubideen aldeko Emakumeen Elkarteari (ASODEMUC), Herrien Biltzarrari, Aberriaren Martxari, Fabián Torres García eta María Doris Rivera Ríosi, biziaren eta lurraldearen alde egindako lan nekazengatik.

Eskerrak, halaber, Kolonbiako erakundeei eta nazioarteko eragileei bisita honetan zehar laguntzeko izan duten prestutasunagatik eta eskainitako denborarengatik. Eskerrik asko giza eskubideen egoerari buruzko beraien ikuspegia emateagatik.

Aurten, berriz ere, gure elkartasuna eta babesa erakutsi nahi dizkiegu 2015eko urtarrilean Bogotan hil zuten Carlos Alberto Pedraza Salcedoren eta Villavicencioko kartzelan askatasunik gabe dauden Esmer Montilla, Samuel Rojas, Ramiro Artehortua eta Ingrid Pinilla senide, lagun eta adiskideei. Eta baita Kolonbian bakea eraikitzeko apustua egin zutenei eta egunero apustu hori egiten dutenei ere.

## OSAKETA

### EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres (Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria)

### EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA:

Leixuri Arrizabalaga Arruza, batzordeburua (Euzko Abertzaleak, Nationalistas Vascos)

Iñigo de Iturrate Ibarra, kidea (Euzko Abertzaleak, Nationalistas Vascos)

Diana Carolina Urrea Herrera, kidea (EH Bildu)

Rosa María Fresno, kidea (Euskal Sozialistak, Socialistas Vascos)

### GIZA ESKUBIDEEN ERAKUNDEAK

Víctor Julio Torres Criado (Mugarik gabeko Emigratuak)

Patricia Barcena Garcia (CEAR-Euskadi)

Leire Lasa Fernandez (CEAR-Euskadi)

## IZANDAKO BILERAK

	<b>Villavicencio (Metako departamentua)</b>
<b>Gizarte-erakundeak kolektiboak</b> /	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Joel Sierra Giza Eskubideen Fundazioa</li> <li>• Kolonbiako Ekialdeko Giza Eskubideen eta NZHren Aldeko Fundazioa (DHOOC Fundazioa)</li> <li>• Aberriaren Martxa (Meta)</li> <li>• Herrien Biltzarra, Erdi Ekialdeko Atala</li> <li>• Erdi Ekialdeko gizarte eta herri masa-mugimendu politikoa</li> <li>• Choapo Korporazioa</li> <li>• Gazte Ikasleen Nazio Elkarte (Anjeco)</li> <li>• La Macarena udalerriko gizarte erakundeen koordinazio mahaia</li> <li>• Osasuneko langileen sindikatua</li> <li>• Acatamuc-nekazarien ingurumen-erakundea (La Uribe-Meta)</li> <li>• Langile nekazarien sindikatua</li> <li>• Herri defentsarako kolonbiar erakundea</li> <li>• Gatazka eta bakea ikerketa taldea</li> <li>• Ascaloan-ingurumenaren aldeko elkarte</li> <li>• Onic</li> <li>• Corpoalları</li> <li>• Asopecrop</li> <li>• Ascalge</li> <li>• Aspromacarena</li> <li>• Amem-eko ingurumenaren eta garapen jasangarriaren aldeko korporazioa (Corpoamem)</li> <li>• Bakearen aldeko Fronte Zabala</li> <li>• El Porvenir-eko nekazari komunitatea (Puerto Gaitán)</li> <li>• Norman Pérez Bello Korporazio Klaretarra</li> <li>• Polo Demokratiko Alternatiboa</li> <li>• Langile Sindikal Batasuna (USO)</li> <li>• Kolonbiako Ekialdeko Herritarren eta Nekazarien Herri Batasuneko Mahaia (Mucapoc)</li> <li>• Metako Langile Independenteen Sindikatua (SINTRAGRIM)</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Batasun Patriotikoa</li> <li>• Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionala (MOVICE)</li> <li>• San Carlos de Guaroa udalerriko biktimen elkarte</li> <li>• Bajo Ariariko Giza Eskubideen Fundazioa</li> <li>• Kolonbiako Alderdi Komunista</li> <li>• Reiniciar Korporazioa</li> <li>• Vínculos Korporazioa</li> <li>• Los Llanos Unibertsitateko Ikasleen Goi-Kontseilua</li> </ul>
<b>Erakunde publikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Metako Herrizaintza</li> <li>• Kolonbiako Prokuradoretza Nagusia</li> </ul>
	<b>Bogota</b>
<b>Gizarte-erakundeak kolektiboak</b> /	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herrien Biltzarra</li> <li>• Aberriaren Martxa</li> <li>• Bakearen eta Kolonbiako Emakumeen Eskubideen aldeko Emakumeen Elkarte (ASODEMUC)</li> <li>• Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea</li> <li>• Giza Eskubideen Aldeko Batzorde Iraunkorra (CPDH)</li> <li>• Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionala (MOVICE)</li> <li>• Nekazarien Erreserba Eremuen Nazio Elkarte (ANZORC)</li> <li>• International Action for Peace (IAP)</li> <li>• Elkartasuneko Korporazio Juridikoa</li> <li>• Kolonbiako Desplazatuena Nazio Elkarte</li> <li>• Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Federazio Nazional Sindikal Unitarioa (FENSUAGRO)</li> <li>• Amem-eko ingurumenaren eta garapen jasangarriaren aldeko korporazioa (Corpoamem)</li> <li>• Nazioarteko Bake Brigadak (PBI)</li> <li>• Bake Duina</li> <li>• ANSUR kolektiboa</li> </ul>
<b>Erakunde publikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kolonbiako Prokuradoretza Nagusia</li> <li>• Herriaren Defentsa Erakundea</li> <li>• Babeserako Unitate Nazionala (UNP)</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"><li>• Biktimen Laguntza eta Ordaintza Osorako Unitatea</li><li>• Memoria Historikoaren Zentro Nazionala</li></ul>
<b>Nazioarteko erakundeak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa (NBGEGK)</li><li>• Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Batzordea (INBGB):</li></ul>

## TESTUINGURUA

Kolonbiak 48.133.475 biztanle ditu; horietatik % 85,94 mestizoak dira, % 10,62 beltzak, % 3,43 indigenak eta % 0,01 rom herrikoak edo ijitoak<sup>1</sup>. Guztira, 82 herri indigena daude aitortuta, eta, gaztelaniaz gainera —hizkuntza ofiziala—, beste 60 hizkuntza mintzatzen dira.

Kolonia aberatsa da natura-baliabideei dagokienez, baina aberastasun-banaketan desoreka handiena dutenetakoa ere bada.

### **Barne-gatazka: ageriko biktimak eta biktima ikusezinak**

Herrialdeak pairatzen duen gatazka politiko, sozial, ekonomiko eta armatuak 60 urte baino gehiago egin ditu dagoeneko —Latinoamerikako luzeena da—, eta horrek zifra kezagarriak ekarri ditu. Memoria Historikoko Zentro Nazionalak, honako hau dio *¡Basta ya! Colombia, Memorias de Guerra y Dignidad* txostenean: 220.000 pertsona inguru hil dira, 1958ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31 bitarte (hamarretik zortzi, zibilak). Txosten horretan bertan onartzen da datu horiek estimazioak direla, izan ere "*gerraren ondorio dira anonimotasuna, ikusezintasuna eta biktima guztiak onartzeko ezintasuna*".

Biktimen Laguntza eta Ordaintza Osorako Unitateak —hemendik aurrera, Biktimen Unitatea—, 2015eko apirilaren 1ean, 7.860.385 pertsona kontatu ditu gatazka armatuaren biktimatzat. Horietatik, 160.960 bortxazko desagertuenak izan dira.

Historikoki, jazarpen politikorako eta kontrol sozialerako erabili izan da bortxazko desagertzea. Azken urteetan, hilarazte estrajudizialeterako batzordearekin izan dute zerikusia bortxazko desagertuetako askok. Nazioarteko Zigor Auzitegiko (NZA) fiskaltzak<sup>2</sup> 2012ko azaroan adierazia du "*oinarri nahikoa*" dagoela erakusten duena "**positibo faltsu**" esaten zaien horiek —hau da, indar publikoak bahitutako eta hildako pertsonak eta gudu zelaian hildako gerrillaritzat hartuak— "*gutxienez indar armatuetako zenbait brigadak hartutako erabaki politikoaren ondorioz*" hil zituztela, eta, beraz, "*estatu politikaz*" ari garela eta ikertzen jarraituko duela, politika hori maila handiagoko estatuko funtzionarioek ere sustatzen zuten jakiteko.

### **Emakumeen aurkako indarkeria**

*Violaciones y otras violencias: Saquen mi cuerpo de la Guerra* ikerketan datorrenez —bederatzi urteko aldia hartzen du (2001-2009)— urtean batez beste **54.410 emakumek jasan dute sexu-indarkeria**. Zenbaki horiek berretsi egiten dituzte Gorte Konstituzionalaren ondorioak<sup>3</sup>, indarkeria hori "*Kolonbiako gatazka armatuan ohiko praktika zabaldua, sistematikoa eta ikusezina*" dela, alegia.

Emakumeen aurkako indarkeria fisiko, psikologiko eta sexuak, maiz, lurraldea (bortxazko desplazamendua eta deserrotzea eragiteko xedez) eta gizartea kontrolatzeko helburua betetzen dute, talde armatuak dauden herri eta lurraldeetan. Emakumeek, ikusezin bihurtutako biktima izanik, zenbait oztopo aurkitzen dute justiziaren bila: beldurra, errua, mehatxuak, xaxatzeak eta arretarik eta erakundeen ardura egokirik eza, besteak beste. Jasandako bortxaketen inguruko bortxazko isiltasuna eta itxurazko normaltasuna beste indarkeria mota bat dira<sup>4</sup>.

### **Lurrak kentzea eta bortxazko desplazamendua**

<sup>1</sup> Kolonbiako Estatistika Administrazioaren (DANE) datuen arabera.

<sup>2</sup> Nazioarteko Zigor Auzitegia, Fiskalaren Bulegoa, Kolonbiako Egoera. 2012ko azaroko txostena, 96. paragrafoa, Sincelejoko (Sucre) Zigor-Auzitegi Berezituaren zita, Luis Fernando Borja Aristizabalen aurkako sententzia aurreratua, 2011-00004-00 erreferentzia, 2011ko ekainaren 23a.

<sup>3</sup> Kolonbiako Gorte Konstituzionalaren 092/08 Autoa.

<sup>4</sup> Ruta Pacífica de las Mujeres; Afonso, Carla; Martín Beristain, Carlos. Memoria para la Vida. Una Comisión de la Verdad desde las Mujeres para Colombia. EHU, 2013ko apirila.

**Lurraz jabetzea eta hori erabili eta edukitzea** dira Kolonbiako gatazkaren erdigune nagusia. Jendea lekualdatzera bortxatzen dutenean, horren atzean sarritan lurrez jabetu nahia eta lurraldearen kontrola egoten dira, dela helburu estrategiko-militarreatatik edo dela soilki helburu ekonomikoengatik. Desplazaturako biztanleen % 52,2ri lurrak indarrez kendu zizkieten edo horiek uztera behartu zituzten. Zenbaki ofizialen arabera, azken hogeita hamar urteetan, desplazaturako herritarrek sei milioi eta erdi hektarea baino gehiago utzi behar izan dituzte; horietako %15 nekazaritzari eta abelazkuntzari zegozkien. Bestelako kalkulu batzuen arabera, Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionalak (MOVICE) dio lur-gabetze hori hamar milioi hektareakoa ere badela<sup>5</sup>.

**Indigenen, nekazarien eta afrikarren ondorengoen** komunitateak lurrari estuki lotuta daude eta haiek pairatu dute gehien bortxazko gabetzea eta bortxaz desplazatu dituzte. Biktimen Unitateak **bortxazko desplazamendu egoeran dauden 6.646.395 pertsona** dauzka erregistratuta, munduko kopururik handienetako bat.

Nekazaritzako erregaien laborantza intentsiboa denez eta garraiorako eta energia-produkzioarako azpiegitura handiak eraiki direnez, hutsarazi egin dituzte lehendik hor zeuden herrien lurraldeak. Askotan, **pertsonak ez dira joaten indarkeria dagoelako; joanarazteko erabiltzen da indarkeria**<sup>6</sup>.

Espainiako Estatuak da Europako estatuetan Kolonbian diru gehien inbertitzen ari den herrialdea. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa multinazional askok negozioak dituzte Kolonbian ekonomiaren sektore estrategikoetan: hidrokarburoak, elektrizitatea, eraikuntza, banketxeak, telefonia, aseguruak eta komunikabideak.

Alde horretatik, konstituzioan hala aginduta badator ere, herri indigenei eta afrikar etorkia duten komunitateei oraindik ez diete kontsultatzen beren lurralde kolektiboetarako pentsatuta dauden proiektuez.

### **Biktimei eta Lurrak Itzultzeari buruzko Legea**

Juan Manuel Santosen gobernuak 1448 Legea onartu zuen 2011ko ekainaren 10ean, Biktimei eta lurrak itzultzeari buruzko Legea, alegia. Lege horrekin, Biktimen Unitatea, Memoria Historikoaren Zentro Nazionala eta Lurrak Itzultzeko Unitatea sortu ziren.

Horrela trantsizio-justizia egingo balitz bezala aurkeztu zuten proiektu hura, baina biktima kontzeptuari denbora-muga ezarri zitzaion, eta kanpoan utzi zituen 1985eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko biktimak eta 1991ko urtarrilaren 1a baino lehenago haien lurretatik bota zituztenak.

Hasiera batean, gobernuak uste zuen 2015eko amaierarako 150.000 sententzia emango zirela lurrak hasierako jabeen itzultzeko. 2014ko irailera arte, ordea, 1.546 sententzia baino ez dira eman, jaso diren eskaerak ia 68.000 izan diren arren<sup>7</sup>. Lurralde indigena batek, Alto Andáguedak (Chocó), eta afrikarren ondorengoen lurralde batek, Renacer Negrok (Timbiquí, Cauca), baino ez dute jaso lurrak itzultzeko epaia<sup>8</sup>.

Amnesty Internationalek adierazi duen Legearen alderdi batzuek eta haien aplikazioak, zenbait kasutan, legez kontra eskuratutako lurrak legez edukitzea erraz dezakete.

---

<sup>5</sup> CEAR-Euskadi. *Contra el despojo. Capitalismo, degradación ambiental y desplazamiento forzado*. Análisis de los casos de Colombia y Ecuador. Bilbao, 2012.

<sup>6</sup> Idem

<sup>7</sup> Human Rights Watch, 2015eko Munduko Txostena, Kolonbiari buruzko kapitulua. 2015eko urtarrila.

<sup>8</sup> Amnesty International. Colombia: Restituir la tierra, asegurar la paz. 2015eko azaroa.

Lurrak eskatzen dituzten desplazatutako pertsonen eta lurren itzulpenaren liderrek mehatxuak eta indarkeria jasaten dituzte orain ere, eta gehienetan zigorrik gabe geratzen dira ekintza horiek.

### **Justiziaren eta Bakearen Legea**

Bederatzi urte pasa dira 2005eko 975 Legea edo Justizia eta Bakearen legea delakoa promulgatu zutenetik, baina talde paramilitarren desmobilizazioa lortzea helburu zuen lege horren aplikazioa oso motela izan da eta gabezia asko izan ditu. Lege horrek zigor-murrizketa handiak eskaintzen dizkie desmobilizatutako paramilitarrei.

Prozesuak egiaren eskubideari dagokionez aurrerapen batzuk ekarri dituen arren —fiskaltzaren datuen arabera, 51.906 biktima eragin dituzten 39.546 krimen aitortu dituzte paramilitarrek; horien artean, hilketak 25.757, eta sarraskiak 1.046—, esparru legal hori, **de facto, amnistia** bat izan da desmobilizatu ia guztientzat eta kondenatu apurrentzat; izan ere, bost eta zortzi urte bitarteko zigorrak ezarri zaizkie, gizateriaren aurkako delituetan izandako erantzukizunengatik<sup>9</sup>. 2014ko irailera arte, datu ofizialen arabera 30.000 paramilitar desmobilizatu dira, baina horietatik 37 baino ez dituzte kondenatu.

Azken urteetan agerian geratu da garai bateko talde paramilitarrekin bat datozela gobernuak BACRIM deritzanak (Nabarmentzen Hasi Diren Talde Kriminalak). Askok aktibo jarraitu zuten eta talde berrietan berrantolatu ziren, gehiegikeriak, hilketak, desagerpenak eta sexu-indarkeria egiten jarraituz.

Garapen eta Bakerako Ikerketen Institutuaren (Incepaz) X. Txostenaren arabera, 2014 eta 2015 artean, **talde paramilitarrak 338 udalerritan daude**, batez ere Costa Cariben, Cesarren, Pacificon eta Orinoquian. 17 egitura armatu identifikatu dira, eta zabalduenak Los Urabeños (Clan Úsuga edo Autodefensa Gaitanistak ere deituak) eta Los Rastrojos dira.

### **Bake-negoiazioak**

Kolonbiako Gobernuaren eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileen (FARC-EP) elkarrizketek markatu dute Kolonbiako agenda politiko eta soziala. Elkarrizketa horiek Oslon hasi ziren (Norvegia), 2012ko urriaren 18an, eta egun, Habanan egiten ari dira (Kuba).

Agendak bost eztabaidagai ditu: "Nekazaritza-garapen osorako politika", "Parte-hartze politikoa", "Legez kanpoko drogen arazoarentzako konponbidea", "Gatazkaren amaiera" eta "Biktimak". Lehenengo hiru puntuetan lortutako akordioen ondoren, 2015eko abenduan biktimei buruzko akordioa lortu zen. "Gatazkaren Amaiera" atala azkenerako utzi da, akordioak betetzen direla egiaztatzeko martxan jartzen diren mekanismoekin batera tratatzeko.

Urtearen erdialderako akordio bat sinatzea eta ondoren kolonbiarrek hura legitimatzeko plebiszitu bat egitea espero da.

Gizarte Zibilak, berriz, hainbat eskari egin ditu, justizia soziala ekarriko duen bake iraunkorra lortzeko: bi aldeek su-etena egitea; estatuaren funtzionamendu-egitura aldatzea; zigorgabetasunaren aurka borroka egitea; paramilitarismoa desegitea; ELNrekin prozesu formalari hasiera ematea eta Egiaren Batzordea sortzea, Kolonbiako historiaren gutxieneko bertsio bateratua iristeko. Horrek ez luke Kolonbiako gobernuaren betebeharra ordezkatzeko, herrialdean jasandako indarkeriaren arduradun nagusiak epaitzeko.

Bi urtez aztertzeko elkarrizketak egin ondoren, 2016ko martxoaren 30ean Kolonbiako gobernuak eta ELNk elkarrizketen hasiera iragarri zuten. Elkarrizketok Ekuador, Venezuela, Txile, Brasil eta Kuban egingo dira. Herrialde horiez gain, Norvegiak prozesua bermatuko du. Agendak 6 puntu izango ditu: parte-hartzea, demokrazia, eraldaketa, biktimak, gatazka eta gauzapena.

---

<sup>9</sup> ODHACO (Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Bulegoa), 2013ko apirila; GENBGK, Kolonbiako Giza Eskubideen Egoera, 2013ko txostena.

Dirudienez, gobernuak bi elkarrizketa-mahai izango ditu —FARCeekin eta ELNrekin— prozesu berean bat egiteko.

### **Zuzenbide penal militarra**

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) adierazi duenez, Kolonbian **zigorgabetasuna "egiturazkoa eta sistemikoa"** da<sup>10</sup>. Hori indartu egingo da Zuzenbide penal militarren zabalpena onartzen bada, Indar Publikoek egindako eskubide-urraketa justizia penal militarren epaitzea baitu helburu zabalpen horrek.

Bertan adierazten da Indar Publikoetako kodeek egindako delituak "zerbitzu aktiboan eta zerbitzu horrekin zerikusia" badute, Tribunal Militarrek epaituko dituztela. 2010ean, Kode Penal Militarren erreforma eta gero, erabaki zen ezingo zirela zerbitzu aktiboarekin lotu honako delituak: tortura, genozidioa, bortxazko desagerpena, gizateriaren kontrako krimenak edo Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren (NZH) kontrakoak.

Hala ere, gertu egon daiteke bake-akordioak sinatzeko garaia, eta horren aurrean Kolonbiako gizarteak eta nazioarteko gobernu eta erakundeek herritarren kontrako krimenen arduradunak epaitzeko eskatzen dute. Horren guztiaren eraginez krimen horietan nahastuta daudenak lege-ekimen asko aurkeztu dituzte, giza-eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren kontrako urraketa larriak berriz ere Zuzenbide Militar Penalaren bidez epaituak izan daitezela ("positibo faltsu" esaten zien epaiketaz kanpoko hilarazteak barne).

### **Giza Eskubideen defendatzaileen egoera**

Defendatzaileak Gara Programaren arabera, 2015ean, 682 defendatzailek **jasan zituzten erasoak** (% 39 emakumeak eta % 61 gizonak). Horrek esan nahi du iaz baino % 9,95 gehiago igo dela.

Erasorik ohikoenak hauek izan dira: mehatxuak (% 78), hilketak (% 9), atentatuak (% 6), atxiloketa arbitrarioak (% 4), informazio lapurretak (% 2) eta sistema penalaren erabilera arbitrarioak (% 1). 2014ari dagokionez, mehatxuen eta hilketen igoera kezagarria ikusten da. *"Batez beste, 2015ean, EGUNERO giza eskubideen 2 defendatzailek jasan zituzten erasoak Kolonbian"*.

Egile materialak, gehien bat, talde paramilitarrak dira (% 66), haien ondoren "ezezagunak" (% 25), indar publikoko kideak (% 7) eta, azkenik, gerrillak (% 0,5).

Guztira, erakundeak **hildako 63** defendatzaile zenbatu dituzte (8 emakume eta 55 gizon), 2014an baino 8 gehiago. Bosgarren urtez jarraian lider indigenek jasan dute hilketa kopururik handiena.

Bestalde, Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak (NBGEGKB) giza eskubideen **885 defendatzailearen aurkako 295 eraso** erregistratu zituen (310 emakume). Haietatik, **36 hilketak** izan ziren (3 emakume), 20 hilketa saioak, banako eta taldeko 151 hilketa-mehatxu eta legez kontrako zaintzaren 80 salaketa. Hilketen kopurua azken 20 urteetako batez bestekoa baino handiagoa da<sup>11</sup>. Eraso horiek, batez ere, lau testuingurutan gertatzen dira:

- **Lur-gatazkak**, batez ere lurralde etnikoetan. 36 hildakoetatik 19 halako gatazkei lotutzat jo ziren.

---

<sup>10</sup> Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra. Kolonbiako Giza Eskubideei buruzko hirugarren txostena, Amerikako Estatuaren Erakundeko (AEE) dokumentua (OEA/Ser.L/V/II.102, 9. ber. dok. 1, 1999ko otsailak 29, 14. par.).

<sup>11</sup> 1994 eta 2014 artean Kolonbian giza eskubideen 691 defendatzaile hil dituzte, batez beste 34 pertsona urtean (NBGEGKBk finkatutako datuak, Bermeen Mahai Nazionalaren esparruan, Nazioko Fiskaltza Nagusiak eta gizarte zibileko erakundeek emandako informazioa erabiliz).

- **Justizia eske:** biktimen ordezkariak, batez ere estatuko agenteei egotz dakizkiekeen bortxaketen kasuetan auzitan dihardutenak, behin eta berriz jazartzen dituzte. Zaintzeko ekintzak prozesu judizialen une erabakigarriekin batera areagotzen dira.
- **Gizarte eta politika lidergoen estigmatizazioa:** Aberriaren Martxa eta Herrien Biltzarreko liderrek mehatxuak jasotzen dituzte oraindik eta zainduak dira, gerrillei lotuta daudelakoan. Masa-hedabideak erabili dira nekazarien erakundeak edo lider indigena ezagunak publikoki estigmatizatzeke.
- **Bakearen aldeko aktibismoa:** Habanako biktimen entzunaldietan parte hartu zuten erakundeak eta pertsonak.

#### Funtsik gabeko auzipetzeak

Halaber, NBGEGKBk giza eskubideen defendatzaileen aurkako jazarpen penal bidegabeaz ere ohartarazi du. Izan ere, prozesuko bermeak urratzen zaizkie, “**segurtasun demokratikoa**”ren logika zikinak gidatuta. Defendatzaileak behin eta berriz harrapatzen dituzte eta askatasuna kentzen diete zenbait urtez, maiz frogarik ez egoteagatik askatzeko azkenean.

Halaber, bake prozesu baten erdian ‘emaitzak’ eragitea bilatzen duten ekintza horiek eragindako kaltea dimentsionatu beharraz ohartarazi dute. Bestalde, alde handia dago haien eta gizarte eta herri liderrek pairatutako erasoen ikerketan dauden zigorgabetasunaren eta emaitzarik ezaren artean.

Horrek denak prebenitzeko giza eskubideen defendatzaileak babesteko ahalegin handiagoak behar direla eta tokiko prebentzio politika eta estrategiarik ez dagoela erakusten du.

#### Mehatxu masiboak eta zigorgabetasuna

Urte horretan bertan, NBGEGKBk **211 emakume, 298 gizon eta 47 gizarte erakunderen aurkako 39 panfleto mehatxagarri** erregistratu ditu. Panfletoen iraunkortasunak eta mezuetako elementu komunek, erabilitako hizkuntzak eta aipatzen diren erakundeek halakoak egiten dituztenen antolamendu maila handia erakusten dute.

Bestalde, CIDHeK bere kezka adierazi du giza eskubideen defendatzaileek eta kazetariak pairatzen dituzten etengabeko mehatxuengatik eta Kolonbiako Estatuari eskatu dio mehatxu horiek behar bezala ikertzeko, arretaz eta modu serio, zehatz eta inpartzialean, berriz ere horrelakorik gerta ez dadin. Era berean, gatazka armatuak iraun bitartean gertatu ziren giza-eskubideen urraketak salatuz defendatzaileek egin zuten lana goraiatu dute, eta baita Kolonbian bakea lortu eta indartzeko prozesuan egin dituzten ekarpen baliotsuak ere<sup>12</sup>.

#### Gizarte zibilaren proposamenak eta protestaren kriminalizazioa

Kolonbiak gizarte-mugimendu sendoa du, eta giza eskubideen aldeko erresistentzia-prozesu nabarmenak garatu ditu; prozesu horietan, gobernu nazionaleri hainbat proposamen eta aukera aurkeztu dizkiete, justizia soziala aintzat hartuko duen bakea lortzeko.

2013 gizarteko borroken urtea izan zen, eta 1975etik hona borroka gehien geratu diren urtea da. 1990ko hamarkadan eta 2003ra arte protesta sozialak behera egin zuen, landa-eremuaren militarizazioaren, talde paramilitarren igoaldiaren eta legez kanpoko taldeen arteko gerraren ondorioz. Egun, gizarte-mobilizazioen kopurua gora doa. Giza eskubideen aldeko elkarteak, ordea, kezkatuta daude protestaren kriminalizazioa dela-eta. 2013ko ekainaren 11 eta irailaren 7 artean, hainbat sektoretako kideek Nekazarien Grebari hasiera eman zioten Catatumbon, eta jarraian etorri ziren Kolonbiako Meatzarien Greba eta Kolonbiako Nekazarien Greba Nazionala. Mobilizazioetan gizarte-mugimenduen estigmatizazioa, liderren kontrako eraso larriak eta Indar

<sup>12</sup> <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2015/007.asp>, 2015eko urtarrilaren 30a

Publikoen gehiegizko erabilera (bereziki Istiluen aurkako Eskuadro Mugikorak (ESMAD) egindakoa) gertatu ziren, besteak beste.

Mobilizazio horien ondorioz, eta Gobernuaren eta gizarte-mugimenduen arteko akordioak ez betetzearen ondorioz eta gizarte-protesten aurkako errepresioa gauzatzeko indarra handitzeko asmoak publiko egin izanaren ondorioz, grebek 2014. urtera arte iraun dute, eta Nekazarien Herri Gailur Etniko Nazionala garatu da, zeinetan herrialde osoko txokoetatik etorritako 30.000 pertsonak hartu baitzuten parte.

2015eko uztailen 13 pertsonaren atxiloketa masiboa gertatu zen, haietako 11 Herrien Biltzarreko kideak<sup>13</sup>; Feliciano Valencia lider indigena ere atxilotu zuten, bigarren auzialdian kondenatu ondoren (lehenengoan absolbitu egin zuten), kondenatzeko epaia irakurria izan gabe. Haren atxiloketa komunitate indigenen eta ordezkatzten dituzten erakundeen, hala nola Caucazo Eskualdeko Batzorde Indigenaren (CRIC), aurkako kanpaina mediatiko gogor baten ondoren gertatu zen.

Difamazio eta jazarpen kanpainak gorabehera, giza eskubideen erakundeek eta gizarte-mugimenduek **gizarte-justizia duen bakearen** alde egiten jarraitzen dute. Nekazaritzaren erreforma da, oraindik ere, aldarrikapen nagusia. Erauzketa-ereduak lurra pilatzen ditu eta ingurumen-inpaktu larria dauka eta horren aurrean beste eredu ekonomiko bat proposatzen dute, herrien iraupena eta bizitza duin bat edukitzeko eskubidea bermatuko duena, nekazarien, indigenen, afrikarren ondorengoan eta herri-sektoreen ekonomia indartuz. Gainera, gizarte-protestaren kriminalizazio eta auzipetzearekin amaituko dela ziurtatuko duten berme politikoak eskatzen dituzte, eta baita zuzenbide penal militarra bertan bera geratzea eta nekazaritza-produkzioari buruzko politiken definizioan parte-hartze oso eta eraginkorra egotea ere, komunitateek era autonomoan eraikitako proposamenak kontuan hartuz.

---

<sup>13</sup> Kasu hori hurrengo ataletan garatu da.



## GIZA ESKUBIDEEN ERAKUNDEAK



### Giza Eskubideen defendatzaileen egoera

Giza eskubideen erakundeen ustez, 2015aren ezaugarri bat gizarte-erakunde eta -mugimenduen aurkako **errepresioa** izan da. **Mehatxuen eta hilketen kopurua igo** egin da, batez ere **emakume liderren** kasuan; aurreikusten dutenez, egoerak gora jarraituko du “akordioen ondorengo” egoera batean. Aipatu dituzten gertaera biktimizatzaile nagusiak hauek izan dira:

- Atxiloketa arbitrarioak, auzipetzeak, hizkuntza estigmatizatzailea eta masa-hedabideen erabilera atxilotuak insurgentziei lotzeko.
- Talde paramilitarren eta militarren mehatxu zuzenak.
- Bizilekuen bortxatzea, jarraipenak eta informazio lapurretak.
- Hilketak, atentatuak, torturak eta bortxazko desagertpenak.
- Bozera maileen desgaikuntzak.
- Zigorgabetasuna:
  - o Salatutako erasoen ikerketatan ez da aurrerapenik egoten. Asimetria dago prozesu horien eta giza eskubideen defendatzaileen auzipetzeen bizkortasunaren artean.
  - o 2005eko 975 Legea edo Talde paramilitarren desmobilizazioari buruzko Justizia eta Bakearen Legea onartu zenetik 11 urte igarota, giza eskubideen urraketan % 98,5ek zigorrik gabe jarraitzen dute.

Oposizio politikoa desegituratzeko xedez **gizarte mobilizazioa eta protesta kriminalizatzeko estrategia** horiek iraganeko ereduak errepikatzen dituzte: 2015ean udal- eta departamentu-hauteskundeetara aurkeztu diren lider batzuk atxilotuak eta auzipetuak izan dira, eta atentatuak ere pairatu dituzte; egoera horrek Batasun Patriotikoaren genozidio politikoa gogorarazten du.

Gorte Konstituzionalak bezala, 7/153 epaian, “*populismo zigortzailea*” deritzotena salatzen dute, hots, zigor mota berriak sortzea eta daudenentzat zigorra handitzea, diskurtso bikoitza sortuz hala, zeinak, alde batetik bakeaz hitz egin eta, bestetik, gizarte protesta erreprimitzeko lege estaldura sortzen baitu. Epai horrek adierazi duenez, bestalde, egungo espetxe-sistema “*iraingarria, krudela eta ankerra*” da eta gobernuak aurre egin behar dion lehen arazoa pilaketa da. Preso politikoen kasuan, bereziki kezkagarriak dira osasun-arretako eskasia, tratu txar eta tortura kasuak (diziplina-ikerketarik gabe), laguntza juridikoko bermerik eza (abokatuak ere gerrillari gisa seinalatzen eta estigmatizatzen dira) eta indultuak ez betearaztea.

### **13en taldea**

2015eko uztailaren 8an, 13 lider gazte atxilotu eta terrorismoa eta matxinada leporatu zizkieten. Herrien Biltzarrak -13 atxilotuetatik 11 haren kideak dira- prozesu egokirako berme guztien urraketa eta estigmatizazio publikoa salatu ditu: Juan Manuel Santos presidentek berak zoriondu zuen hedabideetan Poliziako komandantea operatiboagatik. Irregularitasunen ondorioz, irailaren 11n 13 pertsonak berehala askatzea dekretatu zen. Gazte horiek eta haien

familiek etengabe jasaten dituzte oraindik eraso mediatikoak eta identifikatu gabeko pertsonen mehatxuak.

### ***Miguel Ángel Beltrán Villegas, Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko irakaslea***

Beltrán Villegas irakaslea auzipetu, bere lanbidean jarduteko desgaitu eta espetxeratu egin dute gatazka armatuari buruzko ikerketa akademiko kritikoen ondorioz.

2009an Mexikon atxilotu eta Kolonbiara deportatu zuten Raúl Reyesen ordenagailuan aurkitutako ustezko mezu batzuegatik<sup>14</sup>. Espetxean bi urte eman ondoren askatu egin zuten. Geroago herritik alde egin behar izan zuen mehatxu eta xaxatzeengatik.

2013an Kolonbiako prokuradore nagusiak bere kargutik kentzeko prozesu bat abiarazi zuen, absolbitua izan zen froga berberetan oinarrituta.

Euskal Ordezkaritza berarekin bildu ahal izan zen 2014an, Kolonbian egindako II. Jarraipen Misioan<sup>15</sup>. Une hartan, Beltrán Villegasek esan zigun Kolonbiako Prokuradoretza Nagusia zigortresna bihurtzen ari dela ezarritako ordena zalantzan jartzen duen ororen aurka, lan-hilketa helburu duten prozesu kriminalizatzaileen bitartez. Diziplina-espedienteak (administrazio bidez) prozesu penalarren akusazioak hartu ditu berriz, nahiz eta frogatuta gelditu den horiek faltsuak direla.

2015eko uztailan berriz atxilotu zuten Bogotan eta hiriko Auzitegi Nagusiak kondenatu zuen. “La Picota” kartzelan dago.

### ***Beste kasu batzuk***

Halaber, 2016ko urtarrilaren 16an Nelly Amaya Catatumboko gizarte-buruzagia hil izana salatu da, baita Huber Ballesteros Fensuagro erakundeko idazkariaren eta Rosalba Gaviria Quindioko giza eskubideen defendatzailearen aurkako amarru judizialak ere. Lehenengoak 675 egun baino gehiago darama askatasunik gabe Bogotako La Picotan, eta bigarrena askatu egin dute dagoeneko.

*EGOERA ZEHATZAK: Babesteko Programaren pean hartutako pertsonen erakundeak* atalean Carlos Alberto Pedraza Salcedo, Ingrid Pinilla Espitia, Esmer Montilla Gutiérrez, José Samuel Rojas Mora eta Ramiro Atehortuaren kasuak garatu dira.

### **Paramilitarismoaren iraupena**

Giza eskubideen erakundeek euren salaketa eta kezka berezia adierazi dute paramilitarismoa berrantolatzen eta hedatzen ari delako. Hori dela-eta, iraganeko garaietako jardunbide- eta jazarpen-ereduak errepikatzen ari dira, eremu batzuetan insurgentziak atzerantz bildu dela baliatuz.

Diotenez, botere ekonomiko, sozial eta politiko tradizionaleri lotutako talde paramilitarren lur-gabetzeko proiektuak **giza eskubideen urraketa iturri nagusia** bihurtzen ari dira. Haien aburuz funtsezkoa da paramilitarismotik etekina atera duten eta ateratzen jarraitzen duten enpresen (nazionalen eta multinazionalen) jokabidea argitzea.

### **Zuzenbide penal militarra**

Zuzenbide penal militarra onartu berrikan eta Poliziaren kode berria onartuta indar publikoak giza eskubideen eta NZHren aurka egiten dituen urraketen zigorgabetasun handia are gehiago handituko dela aurreikusten dute. Indar publikoaren erreforma sakonaren alde egiten dute, haren doktrina eraldatu eta indarrak abusatzeari dagozkion muga argiak ezartzeko. Eta “miaketa militarrik” deritzenak salatzen dituzte; haietan, gazteak derrigortuta erreklutatzen dituzte

---

<sup>14</sup> Kolonbiako Aire Indarraren “Fenix Operazioa”, “Angosturako bonbardaketa” ere esaten diotenean Ekuadorren 2008an tiroz hildako FARCEko komandantea. Operazio horretan beste 21 gerrillari ere hil zituzten.

<sup>15</sup> Ikusi txostena hemen: <http://cear-euskadi.org/?p=1270>

kontzientzia-eragozpenerako eskubidea urratuz. Gorte Konstituzionalak<sup>16</sup> legez kontrako jo ditu zenbait epaitan, eta NBGEGKBk arreta deitu dio haiengatik Kolonbiako estatuari.

### **Habanako elkarrizketak**

Negoiazioetan azken akordio batera iristeko itxaropenak eta ELN haietara batzeko eskaera helarazi dizkigute<sup>17</sup>. Elkarrizketen erdian giza eskubideen eta NZHren aurka gertatzen ari diren urraketak salatu dituzte, ordea, eta egiaren batzorde bat eta gizarte-justizia duen bakea eskatzen dute, desberdintasun historikoak gainditu eta herrialdearen egiazko eta egiturazko eraldaketa bat bermatuko duen bat.

### **1448 Legea, Biktimei eta Lurak Itzultzeari buruzkoa**

Haien ustez, haren gauzapean porrot egin du eta berriz biktimizatzeko gertaerak eragin ditu. Kezkatuta daude 2015eko 1753 Legeak<sup>18</sup> lur-gabetze berriak ekar ditzakeelako eta lur-eskatzaileen hilketak salatu dituzte. Izan ere, Santosen gobernuan 100 pertsona hil dituzte.

### **Nekazarien Erreserba Eremuak**<sup>19</sup>

Gobernu nazionalak, ebaluazioa edo aurrekontu-eragozpenak direla-eta haiek gauzatzea galarazten duten jarraibideak argudiatuz, haiek eratzeko jartzen ari den administrazio- eta lege-oztopoak salatzen dituzte.

Landa-komunitateek pairatzen duten indarkeria salatzen dute (agintekeria, jazarpen politikoa, haien giza eskubideen urraketak, NZHren hausteak eta bortxazko desplazamendua) eta kaltegile nagusiak armada eta paramilitarismoa direla diote. Nekazarien erreserba eremuak aldarrikatzen dituzte lurraldearen defentsarako eta lurra eskuratu eta nekazariak subjektu politiko aitortzea lortzeko tresna gisa.

### **Metako departamentua**

Departamentuko erakundeek, gizarte mugimenduek, sindikatuek eta alderdi politikoek hauek salatzen dituzte: jasandako indarkeria (sarraskiak, hilketak, lur-gabetzeak, epaiketaz kanpoko hilarazteak, bortxazko desagerpenak, bortxazko desplazamenduak, sexu-indarkeria), paramilitarismoaren iraupena, hilketak eta amarru judizialak, politikan parte hartzeko bermerik eza eta babes neurrien eraginkortasunik eza. Berreraikitze prozesuak sortuko dituen memoria historikoa aldarrikatzen dute.

---

<sup>16</sup> 2014ko T-455 Epaia, miaketa militarrei buruzko 2011ko 879 Epaia eta zerbitzu militarreko kontzientzia-eragozpenari buruzko 2009ko C-728 Epaia.

<sup>17</sup> Testuingurua atalean adierazi dugunez, 2016ko martxoaren 30ean Kolonbiako gobernuak eta ELNk elkarrizketen hasiera iragarri zuten.

<sup>18</sup> Amnesty Internationalen arabera, “*Kolonbia: lurra itzultzea, bakea ziurtatzea*” txostenean, Kongresuak 2015eko ekainean onartu zuen 1753 Legeak lurren jabetzei zilegitasuna ematearekin mehatxatzen du, era bidegabean eskuratutako lurren ahalmen ekonomikoa ustiatzen jarraitzea errazten baitu.

<sup>19</sup> Nekazarien erreserba eremuak 1994ko 160 Legeak aitortutako lurralde figura bat dira. 1997. eta 2003. urteen artean 6 eremu eratu ziren.



Une historiko onetan elkartasunari eusteko eta nazioarteko laguntzarako deia egiten dute eta laguntza hori herrialdeko giza eskubideen defendatzaileen egoera hobetzen laguntzeko funtsezko elementua dela uste dute.

## EGOERA ESPEZIFIKOAK: Aldi Batez Babesteko Eusko Jaurlaritzaren programaren pean hartutako pertsonen erakundeak

### Joel Sierra Giza Eskubideen Fundazioa

Joel Sierra Giza Eskubideen Fundazioa erdi-ekialdeko gizarte eta herri masa-mugimendu politikoan sartuta dago. Mugimendua 2010ean finkatu zen eskualdean. Presentzia dauka Araucan, Metan, Casanaren, Boyacan, Santandereko iparraldean, Cundinamarcan eta Vichadan. Herrien Biltzarrean ere parte hartzen du.

Biziaren eta lurraldean irautearen aldeko proposamenak Lurralde-orekarako planean edo “Bizi plan”ean jaso dira, eta estatuak enpresa transnazionalen (petrolio-enpresak, hidroelektrikoak, meatzaritza-enpresak) interes ekonomikoen alde ezarri dituen politiken aurka daude.

Fundazioak aurrera egin du euren lurraldeetan enpresen inpaktuak pairatzen ari diren komunitateen antolakuntza indartzen eta laguntza ematen, nazio eta nazioarte mailako eragin politikoko prozesuen bidez. Lan horren ondorioz, ordea, **mehatxuak, jazarpenak, estigmatizazioa** (insurgentzietakoa izatea leporatzea), **auzipetzea eta hilketa selektiboak** pairatzen ari dira. Eta, gainerako gizarte-erakunde eta -mugimenduek bezala, **“akordioen ondoko” egoera batean errepresioa areagotuko dela** aurreikusten dute.

Salatzen dutenez, Habanako negoziazioak gatazka-ondoko egoera gisa aurkezten dira, FARCEk eta ELNk presentziarik handiena duten eremuetan gizarte eta herri sektoreei jazartzen zaien eta gatazkaren esparruan ekintza militarrek dirauten bitartean.

### Metako departamentua

Estatuak abandonatu dituzenez, departamentuan nekazarien antolamenduak garapen handia izan du. Paramilitarismoa 1997an sartu zen ofizialki, Mapiripango sarraskiarekin<sup>20</sup>. Urtebete geroago, 1998an, Araucako departamentuan, Santo Domingoko sarraskia gertatu zen<sup>21</sup>. Orduan gizarte- eta herri-mugimenduen aurkako errepresioa hasi zen.

### Hidrokarburoen ustiapena

Metako departamentua lehen petrolio ekoizlea da Kolonbian. Ekoizpena Rubiales, Quifa eta Piriri eremuetan pilatzen da, Puerto Gaitan udalerrian. Pacific Rubiales Energy Corp. kanadar kapitaleko enpresa multinazionalak dihardu hiru eremuetan. Kolonbiako bigarren petrolio-enpresa da, ECOPELoren ondoren.

2013ko uztailan, komunitate indigenak, gizarte- eta -erakunde eta -mugimenduak Puerto Gaitanen bildu ziren Pacific Rubiales Energy Corp., Occidental Petroleum Corporation OXY eta ECOPELoren gehiegikeriak salatzeke eta **haien lur-gabetze politiken aurkako epaiketa etiko eta politikoa** egiteko: ingurumen-inpaktua, auzipetzeak, tortura, agintekeria eta protestak antolatzen dituzten pertsonen atxiloketa arbitrarioak, pairatutako erasoen zigorgabetasuna,

<sup>20</sup> 1997ko uztailaren 12an Kolonbiako Autodefentsa Batuetako (AUC) ehun bat kide San Jose de Guaviareko aireportuan lurreratu ziren Antioquiako Urabatik zetozen hegaldietan, indar publikoak kontrolatuta. Armada nazionaleko kideek jaso zituzten eta aireko eta lurreko garraioa eman zieten Mapiripaneraino. Uztailaren 15ean iritsi ziren hara. Uztailaren 20ra arte geratu ziren han. Egun gaitan 49 pertsona inguru torturatu eta leporatu zituzten (FARCen laguntzaileak izatea leporatuta) eta haien gorpuak Guaviare ibaira bota zituzten. 500 familia baino gehiago desplazatu zituzten. Egun desagertutako pertsonen kopuru zehaztugabea dago oraindik.

Indar publikoa uztailaren 22an iritsi zen, sarraskia amaitutakoan, eta hedabideak iritsi ondoren, paramilitarrek ebidentzia fisiko asko suntsitu eta gero. Errekurtsoak jarri arren, ez zen ikerketarik egin eta arduradunak ez ziren zigortu.

2005eko irailaren 15ean CoIDHK Kolonbiako estatua kondenatu zuen bizirako, norberaren osotasunerako, zirkulazio askerako eta bizilekurako eskubidea eta justiziarako eskubidea urratzeagatik.

<sup>21</sup> OXYri atxikitako helikoptero batek herritar zibilei eraso zien. 7 haur eta 7 heldu hil zituzten. CoIDHK bere erantzukizuna onararazi zion Kolonbiako estatuari.

lan-eskubideen, elkartzeko eta askatasun sindikalerako eskubidearen urraketa, Sikuni, Achagua eta Piapoco herri indigenei kontsultatzeko prozesuaren urraketa; zuzendariek zergak saihestea, eta eremuaren militarizazioa.

Petrolio-enpresak kondenatu zituzten giza eskubideen eskala handiko urraketa larri eta sistematikoagatik eta zerga iruzurragatik, finantza-espekulazioagatik eta Kolonbiako estatuari lapurtzeagatik, eta estatua bera ere kondenatu zuten giza eskubideen urraketa sistematiko eta orokorragatik.

Joel Sierra Giza Eskubideen Fundazioak harreman zuzena salatu du hidrokarburoen ustiapenaren eta giza eskubideen urraketaren artean, erlazio bat petrolio-enpresak lurraldera iristean, giza eskubideen urraketak areagotzearen, herritarren bortxazko desplazamenduaren eta eremuaren militarizazioaren artean. Diotenez, arazoetako bat da eredu energetikoa ez dela subiranoa; aitzitik, enpresa transnationalei eman zaie emakidan eta talde paramilitarrak darabiltzate haiek lurraldeetan indarrez sartzeko.

Petrolioaren eta ikatzaren ustiapena arrazionalizatzea proposatzen dute, naturak era ekologikoan inpaktua bereganatu ahal izan dezan.

Azkenik, kezka adierazi dute meatzaritza eremu garaietan egiten delako, hala nola mendikateetan eta paramoetan, haietan egonik ur-erreserba nagusiak, eta energia sortzeko ibaiak desbideratzen direlako.

Edith Santos sindikalistaren (2014ko abuztuaren 29an) eta Daniel Abril herri-lider eta ekologistaren (2015eko azaroaren 13an) hilketak salatzen dituzte. Biak zeuden hidrokarburoen ustiapenaren aurka.

### **Gazteak**

Esan digutenez, gazteen % 50ek baino gehiagok ezin dute lortu goi-mailako hezkuntza (27 erakundetatik, 2 baino ez dira publikoak) eta gehienak zerbitzuen sektorean daudela enplegatuta (% 70 inguruk aldi baterako kontratuak dauzkate edo ezkutuko ekonomian daude).

Salatzen dutenez, armadak jarraitzen du bortxazko erreklutamenduak egiten komunitate eta auzorik txiroenetan eta Los Llanosko Unibertsitatearen ondoan dago kokatuta (batailoia eta aire-basea). Bala galduak; unibertsitate esparruaren barruko kanpamentuak, laguntza-guardiak... ekarri ditu horrek, pentsamendu kritikoa eta oposizio politikoa ekiditeko helburuz hori dena. Azkenik, diotenez, paramilitarrak Unibertsitatean infiltratzen dira gizarteratze programen bidez.

### **Bake-prozesua**

Haien kezka nagusiak aurreko esperientzien porrotak eragiten ditu: beste bake-prozesu batzuk eta paramilitarrak 'desmobilizatzeko' prozesua. Salatzen dutenez, eredu ekonomikoa ez da negoziatuko, eta haien aburuz funtsezkoa da hori gizarte-justizia duen bake irmo eta iraunkorra lortzeko. Gizarte- eta herri-mugimenduen funtsezko eskaera lurraldean geratzea da.

### ***Carlos Alberto Pedraza Salcedo kasua***

2015eko urtarrilean, Bogotan, Carlos Alberto Pedraza Salcedoren bortxazko desagerpena eta ondorengo hilketa gertatu ziren. Komunitateko liderra zen, erdi-ekialdeko gizarte eta herri masa-mugimendu politikoko eta Herrien Biltzarreko kidea.



Haren hilketa gizarte mugimenduen aurkako mehatxu sistematiko eta masiboko testuinguru batean gertatu zen eta haren ondoren areagotu egin zen (13en eta Feliciano Valencia lider indigenaren atxiloketak, Daniel Abril lider nekazariaren hilketa...).

Gertaera hori Babesteko Euskal Programaren III. Jarraipen Misioa egin zenean gertatu zen eta hala jaso da bisitaren ondorioz egindako txostenean<sup>22</sup>.

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) hilketa hori gaitzetsi du eta esan du estatuaren betebeharra dela ofizioz ikerketa bat martxan jartzea gertaera argitzeko, errudunak identifikatuz eta zigortuz<sup>23</sup>.

Herrien Biltzarrak salatu zuenez, Giza Eskubideen Unitateko eta Ikerketa-Talde Teknikoko (CTI) 98. Fiskaltzaren eskuetan dagoen ikerketa judizialak ez du

aurrera egiten eta **estatuaren isiltasun konplizea** aipatzen dute. Urtebete geroago, eta Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak azken urteetan egindako ekintzak erreferentzia hartuta, atera duten ondorioa da ez dagoela batere borondate politiko eta administratiborik giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoen arduradunak aurkitzeko; pertsona horiek, delituak leporatzen zaizkienean, auzipetzeko eta kriminalizatzeko, aldiz, oso azkarrak eta eraginkorrak dira.

Honako eskariak egiten dituzte:

- Carlos Alberto Pedraza Salcedoren bortxazko desagertzea eta ondorengo hilketa ikertzea:
  - Kolonbiako Giza Eskubideen Unitateko 98. Fiskaltzak azkar ikertzea.
  - Ikerketa independente, inpartzial eta sakona arduradun material eta intelektualak aurkitzeko.
  - Biktimen ordezkariaren defentsarako eskubidea bermatzea.
- Nazioarteko komunitateak laguntzea eta zaintzea.
  - Giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxuak eta jazarpenera akordioen ondoko egoera batean eta meatzaritza- eta energia-ereduan sakontzearen ondorioz.
  - Haien aurka hasitako auzipetze prozesuak.
  - Habanako akordioak gauzatzea.
- Giza eskubideen alde egiten duten lana segurtasunez egin ahal izateko berme politikoak.

<sup>22</sup> Ikusi txostena hemen: <http://cear-euskadi.org/?p=2074>

<sup>23</sup> <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2015/007.asp>, 2015eko urtarrilaren 30a

## **Kolonbiako Eki eta Erdialdeko Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren aldeko Fundazioa (DHOC Fundazioa)**

DHOC Fundazioak komunitate landatar eta nekazariak indartzeko lan egiten du, biziaren, lurraldearen, ingurumenaren, osasunaren, hezkuntza publikoaren eta etxebizitzaren defentsan, bizi duineko eta bizi oneko mailak lortzeko osoko apustu gisa.

Haren kezka nagusien artean, laguntzen dituzten komunitateetako pertsonak eta Fundazioko liderrek aurre egin behar dieten auzipetze eta espetxeratze prozesuen berri eman digute. Benetako bake egonkor eta iraunkorra lortzeko egiten duten beharrezko lana aldarrikatzen dute, gerra gainditzeko egoera batetik gero eta hurbilago dagoen herrialde batean, eta haiek berehala askatzeko eskatzen dute.

### **DHOCko liderren auzipetzea eta espetxeratzea**

2013ko abuztuan, Meta eta Guabiareko departamenduetako 8.000 nekazari baino gehiago mobilizatu ziren Nekazarien Lanuzte Nazionalaren esparruan. Nekazarien guardiak Kolonbiako armadako eta polizia nazionalako ESMADeko kideak atxiki zituen kontzentrazioan infiltratzeagatik, nahiz erasoengatik. Eraso horien ondorioz, zenbait nekazari zauritu zituzten (batzuk larriki) eta 27 pertsona atxilotu zituzten.

Ingrid Pinilla Espitia, Esmer Montilla Gutiérrez, José Samuel Rojas Mora eta Ramiro Atehortua DHOC Fundazioko kideek esku-hartze humanitarioak egin eta elkarrizketa-mahaia lagundu zuten. Elkarrizketa-mahai horrek atxikitako pertsonak, besteak beste, NBGEGKBk, Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak eta Herritarren Defentsa Bulegoak osatzen zuten batzordeen eskuetan uztea erraztu zuen.

Lanuztea egin eta bi urtera eta Kolonbiako gobernuarekin elkarrizketa-mahai bat ezarri ondoren, nekazarien aldarrikapenak eta jardunaldi horietan parte hartu zuten pertsonak 'ez jazartzeko' konpromisoa lantzeko, 2015eko uztailaren 15 eta 16an, Villavicencioko Terrorismoaren aurkako Unitateko 48. Fiskaltza Espezializatuak eskatuta, lau pertsona horiek atxilotu zituzten arestian aipatu gertakariengatik eta FARC-EPko Zazpigarren Fronteari ustez laguntzeagatik.

Bahiketa sinplea eta matxinada leporatuta behin-behineko espetxeratzea ezarri ondoren, Herritarren Defentsa Bulegoak eta NBGEGKBk pertsona horiek atxikitako poliziak askatzea erraztu besterik egin ez zutela egiaztatu zuten. Defentsak ikerketaren preklusioa behin eta berriz eskatu arren, Fiskaltzak harekin jarraitzeko asmoa adierazi du.

DHOC Fundazioak esan digunez, bestalde, jakin badakite beste ikerketa batzuk daudela pertsona horien eta beste lider nekazari batzuen aurka terrorismo, bide publikoak oztopatu eta ingurumena kaltetzeko delituengatik, 2013ko lanuzteari lotutako gertakariengatik.

Honako eskariak egiten dituzte:

- DHOC Fundazioko kide diren giza eskubideen lau defendatzaileen aurka bahiketa sinple eta matxinadagatik zabaldu den egozpenari buruzko ikerketa behin betiko artxibatzea, kontuan hartuz nekazarien 2013ko mobilizazioetan egin zuten lan humanitarioa eta departamenduko gobernuarekin hitz egiteko egindako lana jaso dituen aktak Villavicencioko Terrorismoaren Aurkako Unitateko 48. Fiskaltzaren bulegoan daudela haiek atxilotu baino zenbait hil lehenagotik.
- Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak nekazarien 2013ko mobilizazioen kariatara aurreratu dituen ikerketa penalak artxibatzea, baita giza eskubideen defendatzaileen aurka orokorrean irekitako ikerketa guztiak ere, bakerako jurisdikzio bereziari buruzko akordioan oinarrituta.





## ERAKUNDE PUBLIKOAK

Euskal Ordezkaritzak bere kezka helarazi die Kolonbiako erakunde publikoei giza eskubideen defendatzaileen segurtasunagatik (mehatxuak eta xaxatzeak areagotzea, kriminalizazio eta auzipetze prozesuak, nahiz aurreikusten dutenez “akordio-ondoko” egoera batean gerta litekeen gorakada) eta lurraldeetan talde paramilitarrek irauteagatik; halaber, bake-prozesuan dituzten itxaropenak ere helarazi dizkiete.

Kolonbiako erakunde gehienak bat datoz kezka horietan eta diagnostikoan.

### **METAKO HERRIZAINTZA**

#### **Giza eskubideen defendatzaileen egoera**

Departamenduetako azken hauteskundeen ondoren eratu den herrizaintzak departamenduan petrolio-industrien jardueraren ondorioz gertatu diren ustelkeria kasuak, ingurumen-inpaktuak eta giza eskubideen urraketak aitortzen ditu, baita giza eskubideen defendatzaileen **estigmatizazioa** ere, insurgentziei lotuz. Haien ustez, egoera ez da egokia giza eskubideak bermeekin defendatzeko eta prest ageri dira Kolonbiako gobernuaren aurrean eragiteko defendatzaileak babesteko ekintzak bideratzeko.

#### **Bake-prozesua**

Esan digutenez, gatazka-ondoko egoera batean haien lanak prozesuak erraztea izan behar du, haietan protagonistak landa komunitateak eta tokiko agintariak izanik. Horretarako, funtsezkoa da komunitateek, gizarte-erakunde eta -mugimenduek erakundeetan duten **konfiantza lantzea**. Eta egokia deritzote Euskal Ordezkaritzaren presentziari, harresi historikoak haustea ahalbidetuko duen urrats gisa. Haien ustez, maila nazionalean ez dago ildorik eskualdeentzat eta gatazka-ondokoa gobernagarritasun hondarren eta giza eskubideen defentsa egiteko bermeen eskutik doa. Giza eskubideen defendatzaileen lanaren balioa eta haiek prozesuan parte hartzeko premia aitortzen dituzte, proposamenen eraikuntza kolektiboa egiteko.

Departamenduan dauden biktimen eta gertakari biktimizatzaileen dimentsio eskerga aitortzen dute eta Kolonbiako gobernuak departamenduekin eta nazioarteko komunitatearekin agenda bakarra eratzea espero dute.

Esan digutenez, haien hasierako ekintza planaren barruan, herrizaintza berriek bisitatu behar duen lehen udalerria Macarena izango da.

#### **Paramilitarren presentzia**

Bestalde, Kolonbiako Prokuradoretza Nagusiaren ordezkaria ere egon zen bileran eta lurraldean talde paramilitarrak daudela onartzen eta berresten du. Halaber, prest agertu da gizarte-erakunde eta -mugimenduekin batera lan egiteko, haien aurka irekita dauden auzipetze prozesuetan.

#### **Auzipetze prozesuak: DHOC Fundazioko kide espetxeratuak**

DHOC Fundazioko lau kide harrapatu eta espetxeratu izanari dagokionez, nekazarien 2013ko lanuztean bete zuten eginkizun humanitarioa aitortzen dute, baita haien defentsaren argudiatze juridikotik kasua berraztertzeko Herritarren Defentsa Bulegoarekin lotura izateko egin zieten eskaintza ere.

## HERRITARREN DEFENTSA-BULEGOA

### Giza eskubideen defendatzaileen egoera

Esan digutenez, kezkatuta daude giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxuei eta jazarpenari buruzko datu kezkarriengatik (“2015ean 7 egunean behin gertatu zen atentatu bat”)



eta haiek areagotu direlako, batez ere lurren itzultzeen liderren, LGTBI, biztanle desplazatu, emakume defendatzaile, eta abarren aurka. Pertsona horiek egiten duten lanaren garrantzia aitortzen dute eta, diotenez, haien lana estatuak segurtasuneko bermeak jartzen dituela zaintzea da. Auzipetze prozesuen kasuan, laguntza teknikoa ematen duten defendatzaile publikoak jartzen dituzte haien zerbitzura. Esan digutenez, ordea, gehienek uko egiten diete halakoei.

2011ko 4912 Dekretuz ezarritako arrisku-egoera aztertzeko eta babes-neurriak

esleitzeko sisteman parte hartzen du, ahotsa izanik baina botorik gabe. Egun, **428 pertsonak daude aparteko arriskuaren ebaluazioaren pean**, haietako asko Metako departamentuan.

Haien ustez, arriskuaren balorazioan hauek sartu behar dira: arrisku usteak, testuinguruaren balorazioa (arriskuari buruzko txostenak eta jarraipena) eta neurri egokien ezarpena.

Halaber, CIDHren jarraipen-batzordeetan parte hartzen dute, kautelazko neurriak esleitzeari buruz.

### Alerta Goiztiarreko Sistema

Alerta Goiztiarreko Sistemak gatazka armatuak herritar zibilentzat sortutako arrisku-egoerak identifikatzen eta ebaluatzen ditu eta babestu beharrak dituzten agintari eskudunei jakinarazten dizkie. Funtsezko tresna da legez kontrako talde armatuek (gerrillak eta paramilitarrak) sortutako arrisku-egoerak identifikatzeko. Aitortzen dutenez, indar publikoa ere indarkeria sortzearen arduraduna da baina kasu horiek izapidetzeko beste prozedura bat daukate. 2015ean 25 arrisku-egoera identifikatu dira 13 departamentutako (Meta eta Arauca barne) 35 udalerritan: xaxatzeak, jazarpenak, sexu-indarkeria, desagerpenak, posta elektronikoen bidezko mehatxuak, panfletoak, telefono-deiak, izendatzeak eta zuzeneko kontaktua.

Kaltegile nagusiak talde paramilitarrak dira: Urabeños, Rastrojos, Águilas Negras, Frente Libertadores del Vichada, Bloque Meta, La Constru (Putumayo), Oficina de Envigado (Putumayo). Eta talderik erasanena, giza eskubideen defendatzaileak. Bestalde, bizi-eskubidea izan da urratuena azken urteotan (2014 eta 2015ean).

### Paramilitarismoa

Egun 1.090 erakunde kriminal daude, “makrokriminalitatea” esaten diote horri. Esan digutenez, indar publikoak dauka herritarrak babesteko ardura, eta esfortzuak bildu behar ditu BACRIM delakoak borrokatzeko.

### Espetxeetako egoera

Adierazi digutenez, Kolonbiako kartzeletan pilaketa egoera larria dago eta arazo nagusiak osasunari, osasun-zerbitzuen eskuragarritasunari, delituak sortzeari (batez ere mikrotrafikoari lotuta) eta torturari lotuta daude.

## KOLONBIAKO PROKURADORETZA NAGUSIA

Prokuradoretzak diziplinaren, esku-hartzearen eta prebentzioaren arloan dituen eginkizunen berri eman digu. Esparru horretan, gomendioak egiten dituzte agintarientzat. Giza eskubideen defendatzaileen kasuan, arriskuaren analisi bat modu okerrean egin bazen edo haren gomendioak kontuan hartu ez baziren, euren diziplinako eginkizuna bete dezakete funtzionario publikoen aurka. Esparru horretan, prest ageri dira gizarte-erakunde eta -mugimenduekin batera ildo horretan lan egiteko, batez ere arriskuaren analisi batekin adostasunik ez badago hura berriz ebaluatzeko eskatzeko.

Esan digutenez, 2010eko 012 Zuzentarauak, zeinak jarraibideak jaso dituen estatuko erakundeek berma dezaten giza eskubideen defendatzaileek euren eginkizuna betetzeko duten eskubidea, giza eskubideen defendatzaileek pairatzen duten estigmatizazioa desgaikuntza ekar dezakeen falta oso astun gisa jaso du.

Adierazi digutenez, 2013ko lanuzteen ondoren auzipetutako pertsonen kasuen zerrenda eskatu diote Barne Arazoetako Ministerioari baina oraindik ez dute txostenik hartu.

Azkenik, erronka handietako bat talde paramilitarren iraupena dela aitortzen dute.

### **Carlos Alberto Pedraza Salcedo kasua**

Prokuradoretzak lehenetsi duen kasua dela esan digute. Berretsi digutenez, ordea, 98. Fiskaltzak ez dauka hari buruzko aurrerapenik eta bultzada falta aitortzen dute. **Fiskaltzako Giza Eskubideen atalari berehala jarduteko eskatzeko konpromisoa erakutsi dute.**

## KOLONBIAKO FISKALTZA NAGUSIA

Euskal Ordezkaritzak, posta elektronikoz, informazioa eskatu du Babesteko Euskal Programan sartu diren pertsonen eta erakundeen aurkako eraso eta mehatxuengatiko ikerketei eta haietako batzuen aurka hasitako auzipetze prozesuei buruz. Txosten hau argitaratzeko egunean ez diote gure eskaerari erantzun.

Curvarado-Jiguamiando-ko kasuetan eskualdeko Fiskaltzaren jarrerarengatik eskerrak eman dira eta informazioa eskatzen da honakoei buruz: Gilberto Daza hautetsiaren hilketak (Sucre, Cauca), Wilder Eduardo Olave-ren epaiketaz kanpoko hilaztea (Inza, Cauca) eta Argelian (Cauca) desagertutako lau nekazarien gorpuen berreskuratzea. Haien denak 2013ko programaren onuraduna den Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordeak lagundutako prozesuak dira.

Halaber, informazioa eskatu da kasu hauei buruz: amarru judizialerako saioa 2014ko urriaren 12an Cartago hiriaren sarreran (Caucako harana) Gabriel Santiago Mera Montilla Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordeko kidearen aurka, zeina Programaren onuraduna izan baitzen 2013an; Robert Jesus Guacheta ordezko gobernadorearen (Tierradentro, Cauca) eta Hondurasko babesle indigenaren (Morales, Cauca) hilketak, Programaren onuradunak biak 2011n eta 2013an; Carlos Alberto Pedraza Salcedo Herrien Biltzarreko kidearen desagertzea eta ondorengo hilketak, bera ere Programaren onuraduna 2014an eta 2015ean; ECATE elkarte (Caucako harana) Luz Marina Palacios Bocanegraren aurkako jazarpen eta mehatxuengatiko salaketa penala, bera ere Programaren onuraduna 2014an; eta joan den 2015eko maiatzaren 5ean Eduardo Castro Caamaño MOVICE Sucreko kideak jasandako mehatxuak, bera ere Programaren onuraduna 2011n.

Azkenik, Maria Doris Rivera Rios DHOC Fundazioko kidearen prozesuaren egoerari buruzko informazioa eskatu da, bera ere Programaren onuraduna izanik 2015ean.

## BIKTIMEN UNITATEA

Haien ustez, bake-prozesuak erdigunean jarri behar ditu biktimak eta biktimen erregistro bakarra finkatzea (2016ko urtarrilaren 1ean 7.860.385 pertsona dauzka erregistratuta, % 82 bortxazko desplazamenduko egoeran) prozesuko aurrerapen handietako bat da.

Hauek dira aipatu dituen erronka nagusiak:



- Biktimen ahultasuneko egoera gaitztea, euren eskubideak erabiliz gizartearen parte aktiboa izateko.
- Biktimei kalte-ordaina ordaintzea, eragindako kaltea aitortuz eta lagunduz.
- Komunitate indigenei, afrikarrei, raizalei... ordaintza kolektiboa egitea.
- Talde bereizientzako arreta (emakumeak, haurrak...)

### Kanpoko biktimen arreta

Esan digutenez, duten erregistroa txikia da (9.000 pertsona), Kolonbiako erbestearen tamainarekin alderatuta. Espainiar estatutik 600 aitorten jaso dituzte, Bilboko Kantsulatua barne (46 pertsona biltzen dituen 23 aitorten). Aitorpenak jasotzen jarraituko dute 2017ko ekaina arte.

Onartzen dutenez, biktimek ez dute behar adina informaziorik izan eta oraindik mesfidantza eta beldur handiak daude.

Diotenez, prozesuak ez du sustatzen itzultzea eta orokorrean ez dago horretarako eskaera askorik. Hala eskatuz gero, hari laguntzeko neurriak jartzen dira. Bestela, laguntza dauden tokian ematen da.

Gobernuak eta FARC-EPk akordioak sinatu ondoren, biktima berriek bi urte izango dituzte erreklamatzeko.

## BABESERAKO UNITATE NAZIONALA (UNP)

UNP ere kezkatuta dago **mehatxuak areagotu** direlako eta, onartzen duenez, **erronka** baten aurrean daude, indar publikoek eta Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak ez dituztelako **egileak identifikatu**. Horretarako, Fiskaltzaren barruan, ikerketa-talde bat sortu da. Mehatxuak CIDHren entzunaldien aurreko egunetan areagotzen direla ikusi dute.

Ez datoz bat paramilitarismoak herrialdean irautearekin, haien ustez estatuak babesten duelako paramilitarismoa. Talde kriminalak dira (BACRIM) eta haien artean desmobilizatuak daude. Haien finantza-iturriak legez kanpoko meatzaritza, narkotrafikoa eta lurren lapurreta dira, eta horrexegatik, defendatzaileak mehatxatuenak lurren itzultzeen liderrak dira.

Giza eskubideen defendatzailearen definizioan desadostasunak aipatu dituzte eta, beraz, aldeak estatistika ofizialen eta erasoei buruzko datuak ematen dituzten gobernu kanpoko erakundearen artean.

Esan digutenez, 2015eko aurrekontu-arazoaren ondoren, berregokitzeko aldi batean daude baina ez dute alde batera utzi mehatxatutako pertsonen zaintza.

Azken urte honetan giza eskubideen erakundeen eskaera nagusietako bat jaso dute, arrisku kolektiboaren analisia, eta 2015eko abenduan horri buruzko lehenengo CERREM (Arriskuak Ebaluatzeko eta Neurriak Gomendatzeko Batzordea) egin zen<sup>24</sup>.

Azkenik, arriskuen analisietarako egindako protokolo berezien berri eman digute: indigenak, generoa, defendatzaileak eta kazetariak.

## MEMORIA HISTORIKOAREN ZENTRO NAZIONALA

Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak esan digunez, oro har urritu egin dira giza eskubideen eta NZHren aurkako urraketak herrialdean. Badiraute, ordea, egoera oso larriek, hala nola bortxazko desplazamendua, epaiketaz kanpoko hilarazteak ('positibo faltsuak'), talde paramilitarren eta gerrillen presentzia, eta batez ere bake-prozesuari lotutako pertsonen aurkako eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxuen masifikatzea.



**Estatuak mehatxatutako pertsonak babesteko dituen zailtasunak** aitortzen dituzte. UNPk egun jartzen dituen neurriak (adib. balen aurkako txalekoak) ezin zaizkie eman arriskuan dauden pertsona guztiei eta ez ditu ukitzen egiturazko kausak. Halaber, haien ustez babesteko neurri kolektiboak hartzearekin batera zigorgabetasunaren aurka borrokatu behar da.

Azkenik, diotenez, arriskua dago berradiskidetzeko diskurtsoarekin batera isiltasuneko itun bat egoteko.

<sup>24</sup> 2011ko 4912 Dekretuak ezarri zuen giza eskubideen defendatzaileen arrisku-egoera analizatzeko eta neurriak ezartzeko sistemaren berri ere eman digute. Honetan datza: Informazioa bildu eta analizatzeko talde teknikoak (CTRAI) informazioa biltzen du, Hasiarako Baloraziorako Taldeak (GVP) datuak analizatzen ditu eta Arriskuak ebaluatu eta Neurriak Proposatuzeko Batzordeak (CERREM) neurriak baloratu eta onartzen ditu, ondoren UNPk martxan jarri beharko dituenak.

## NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

### NAZIO BATUEN ERAKUNDEKO GIZA ESKUBIDEETARAKO GOI-KOMISARIOA (NBGEGK)

NBGEGKBren eginkizuna politika publikoak aldatzeko behatzea, salatzea eta laguntza teknikoa ematea da. Egun lehenetsitako 36 komunitatetan lan egiten dute.

Herriaren erronka nagusiak, haien ustez, zigorgabetasuna, eskubide politikoak eta adierazpen-askatasuna erabiltzeko mugak, genero-indarkeriak, desberdintasun sozio-ekonomikoa, arraza-bazterkeria eta herri hiritarraren eta landatarraren arteko arrakala dira, eta heldu egin behar zaie bake egonkor eta iraunkorra lortzeko.

#### **Bake-prozesua**

Akordioak sinatzea bakeranzko urrastzat hartu beharko da; izan ere, bake egonkor eta iraunkorrak lortzeko **egiturazko erronka garrantzitsuak** ekarriko ditu giza eskubideen arloan. Bakea lurraldeetatik eraiki behar da, herri etnikoen, komunitateen, gizarte erakundeen eta gizarteko gainerako partaideen parte-hartze aktiboarekin.

Haien ustez, funtsezkoa da ez errepikatzen bermeak finkatzea eta egiarako, justiziarako eta biktimenzako ordaintzarako eskubideei heltzeko bideak definitzea, nazioarteko estandarretan oinarrituta.

**Gatazka-ondoko** egoeran gizarte-**gatazka ugari**, gizarte-mugimenduen aurkako errepresioa eta euren eskubideak aldarrikatzen dituzten biktimen parte-hartze handiagoa aurreikusten dituzte. Haien aburuz, estatuak bere erakundeen jardunbideak berraztertu beharko ditu.

Meatzaritza informala eta legez kanpokoak, meatzaritzako megaproiektu energetikoak, azpiegiturako obrak eta lurra izateko gatazkak, gizarte tentsioen eta protesten egungo iturriak, indarkeriak gora egiteko balizko egoerak dira.

#### **Giza eskubideen defendatzaileen egoera**

Giza eskubideen defendatzaileen egoera egiten duten lanaren funtsezko zati bat da eta, definitzen dutenez, **oso kezagarria** da. Haien estrategia honela dago banatuta:

- Prebentzioa: lana Kolonbiako gobernuarekin haren lana aintzatetsi dezan eta berme politikoak susta ditzan.
- Babesa: elkarriketa-esparruak sustatzea eta arriskuaren analisia indartzea (arrisku-egoerak aztertzeke eta neurriak esleitzeko sisteman parte hartzea).
- Erasoak dokumentatzea eta egoera aztertzea.
- Haien aurkako erasoengatiko auzipetzeak bultzatzea.

2015ean gainditu egin da hil dituzten giza eskubideen defendatzaileen batez besteko kopuru historikoa (36 Bulegoaren datuen arabera). Biktimak sortzen dituzten gertakariei buruz hauek dira haien kezka nagusiak:

- **Gizarte eta politika lidergoen estigmatizazioa** Habanako negoziazioen erdian (Aberriaren Martxa, Herrien Biltzarra, Nekazarien Herri Gailur Etnikoa), funtzionario publikoek eta masa-hedabideek bultzatuta, eta batez ere estatu-krimenen biktimen abokatuen jazarpena (adib. Justizia Jauregia).
- **Talde paramilitarren eraso gehiago.**
- **Liderren auzipetzeak** insurgentziarekin zuzeneko nahiz zeharkako lotura izateagatik gizarte protesten esparruan. Diotenez, bereziki larria da DHOC Fundazioko Meta eta

Guaviareko 4 liderren kasua, zeinak 2013ko lanuztean egindako bahiketa delituagatik atxilotu eta auzipetu baitituzte. NBGEGKBk, zeinak behatzailetza lanak egin baitzituen, pertsona horiek bete zuten eginkizun humanitarioaren analisia egin eta Fiskaltzari helarazi zion. Auziak berraztertze eskatu du, are gehiago, pertsona horietako bi gertakari berberengatik auzipetu zituztenean; izan ere, hori *non bis in idem* printzipioaren urraketa da. Halaber, diotenez, prozesu horietan inteligentzia militarren informazioa erabiltzen ari da.

“*Subrogatu penalen batzordea*” sortu dela jakinarazi digute. Gizarte eta herri liderrak desauzipetzeko ekimen bat da eta, bertan, NBGEGKBz gain, Barne Arazoetarako Ministerioak, Justizia Ministerioak, Defentsa Bulegoak, Fiskaltzak eta Nekazarien Herri Gailur Etnikoak parte hartzen dute. Azken horiek kasuak aurkezteko luzatu egin direla diote eta, sumatzen dutenez, batzuetan haien defentsa estrategia politiko bati lotuta dago batez ere.

- **Ikerketa judizialak:** asimetria haien aurka hasitako prozesuen bizkortasunaren eta pairatutako erasoen ikerketaren moteltasunaren artean, azkenekoek zigorrik gabe dirautelarik. Haien ustez, erakundeek ez dute argi zein den giza eskubideen defendatzaileen lana, ez dago loturarik Fiskaltzaren eta UNPren lanaren artean eta lehenetsunik ez duen gai bat da: Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak dituen 25.000 funtzionarioetatik, 8k baino ez dihardute giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak ikertzen.

Gizarte-erakunde eta -mugimenduek, erakunde gehienek (zein ere den haien ikuspegi politikoa) eta nazioarteko erakundeek egoeraren antzeko diagnostikoa egiten dute. Oraindik, ordea, ezin izan da ezarri benetako babeserako mekanismorik eta erakundeek arloan duten ahultasuna frogatzen du horrek.

Kolonbiako gobernuak negoziazio-esparruak irekitzen eta lortutako akordioak ondoren ez betetzen duen esperientzia aipatzen dute, horren ondoren auzipetzeko prozesuak gertatzen direlarik.

Polizia militarizatzeko estrategia salatzen dute, gizarte protesta bortizki erreprimituz eta, diotenez, zuzenbide penal militarra onartzea armadak bake-prozesuan parte hartzen duela bermatzeko modu bat izan da.

Azkenik, etorkizunerako erronka hauek adierazi dizkigute: lurren itzultzeen liderren aurkako mehatxuen eta itzultze prozesuen euren arteko lotura ezartzea; giza eskubideen defendatzaileek jasotako panfleto mehatxagarrietan kontrainteligentzia militarrek betetzen duen eginkizuna argitzea; eta mehatxu kolektiboak aztertzen jarraitzea.

## **IHESLARIENTZAKO NAZIO BATUEN GOI-BATZORDEA (INBGB)**

INBGB 1998an finkatu zen Kolonbian. 10 bulego dauzka lekuan bertan, haien artean, Araucan eta Villavicencion. Haien eginkizunak pertsona desplazatuak babestea eta irtenbide iraunkorrak bilatzea dira. Laguntza teknikoak ematen diete Kolonbiako erakundeei eta giza eskubideen erakundeen eta komunitateen antolamendua indartzea sustatzen dute.

Haien ustez, ezin da gehiago onartu 6.646.395 pertsonak pairatzen duten bortxazko desplazamendu luzeko egoera. Urtean 247.000 pertsona dira desplazatuak (batez beste). 2002 eta 2003an tasarik altuena gertatu zen indarkeria paramilitarren ondorioz. 2015ean jaitziera gertatu da FARCEk su-etena iragarri ondoren.

Gorte Konstituzionalaren T-025 Epaiaren ondoren, oraindik diraute erronka garrantzitsuek:

- Giza Eskubideak babesteko sistema: banako babesa eta taldeko babesa.



- Hiri eremuak (ez bakarrik landakoak): herritar desplazatuak % 76k esan dute ez direla itzuliko, % 50 baino gehiago hiriguneetan daude.
- Pertsona desplazatuak arreta: batzuk itzuli egin dira (estatuaren eginkizuna aitortzen du) baina ez da lortzen irtenbide iraunkorrik (askotan pertsona horiek berriz desplazatzen dituzte).
- Errepikatzen diren larrialdiak

Kanpoko errefuxiatuei buruz ez dago zifra zehatzik. 1.000.000 izan daitezkeela kalkulatu da. Nazioarteko babes-mekanismoak eskuratu ahal ditzatela eta hirugarren estatuetako gobernuak euren galdagarritasuneko jarraibideak erabil ditzatela zaintzen dute. Kezkatuta daude gatazka-ondoko esparru batean babes estatutuak uka diezazkieketelako eta herritar kolonbiarrak kanporatuak izan daitezkeelako.

Erronka nagusia **bake garaietan babesteko premia** ikusaraztea da.

### **Bake-prozesua**

Haien ustez, akordioak sinatzea prozesuaren hasiera da, ez amaiera. **Indarkeria eta lurralde-gatazkak areagotuko direla** aurreikusten dute: FARC erretiratzean, talde paramilitarrak sar daitezke, egungo giza eskubideen urraketen % 50en baino gehiagoren arduradunak izanik.

Haien kezka nagusiak gerrillari desmobilizatuak pilatzen diren eremuak eta proposamen politikoetan liderrak (Aberriaren Martxa, Herrien Biltzarra, Nekazarien Erreserba Eremuak...) izan direnen aurkako mehatxuak dira.

### **Giza eskubideen defendatzaileen egoera**

Esparru horretan, arriskurik handiena lurrak itzultzeko prozesuaren lider komunitarioek eta tokiko politiken aurkako jarrerak dituzten gizarte liderrek dute.

Esan digutenez, kezkatuta daude giza eskubideen defendatzaileek pairatzen dituzten erasoak zigorgabetasunagatik eta premia ikusten dute Fiskaltzan giza eskubideen ikuspegia sartzeko kasu horiek lehenesteko.

## ONDORIOAK

Euskal Ordezkaritzak eskertu egiten du giza eskubideen erakundeek, nazioarteko erakundeek eta Kolonbiako erakunde publikoek egin dioten harrera.

### Balioespenak

Bere begirunea eta elkartasuna adierazten dizkie giza eskubideen defendatzaileei eta gizarte-justizia duen bakea eraikitzeko betetzen duten legezko eta funtsezko lan baketsua aintzatesten du.

Giza eskubideen aldeko erakundeek, nazioarteko erakundeek eta Kolonbiako erakundeek esandakoaren bidetik, balioespen itxaropentsua egiten du Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPren arteko elkarrizketa irekiaren prozesuagatik, eta aurten azken akordioa sinatzea espero du. Eta pozik dago 2016ko martxoaren 30ean ELNrekin elkarrizketa formalak hasi zirela iragarri delako.

Kontziente da herrialdeak lan zaila duela aurrean, neurri batean gatazkak eragin duen eta eragiten duen biktima kopurua handia delako. Gabeziak adierazi badizkiote ere, ildo horretatik aurrera egiten jarraitzea adoretzen du, oraindik egiteke dauden arazoei helduz, hala nola gizarte-justizia duen bakearen gauzapan egokiari. Berak ere uste du akordioak sinatzea prozesuaren hasiera dela eta ez amaiera eta, haren ustez, akordio horretan biktimen interesa nagusitu beharko da, batez ere indigenen, afrikarren ondorengoen eta nekazarien komunitateen kasuan, zeinen bizimodua lurrarekiko harremanaren mendekoa baita, haiek denek segurtasunez parte hartzea bermatuz.

### Kezkak

Bere egiten ditu giza eskubideen erakundeek eta nazioarteko erakundeek adierazi dituzten eta Kolonbiako erakunde publikoek onartu dituzten giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko kezka orokorrak:

- Giza eskubideen defendatzaileen kontrako etengabeko mehatxu eta jazarpenen igoera, zeinak inolako segurtasun-bermerik gabe egiten duten lan.  
Bake-negoiazioekin batera, paraleloki, erasoen igoera oso kezagarria gertatzen ari da, batez ere emakume defendatzaileen eta lurren itzultzearen liderren aurka.
- Giza eskubideen defendatzaileen aurkako **kriminalizazio-, estigmatizazio- eta auzipetze-**prozesuak.
- Herrialdeko hainbat aldetan giza eskubideak sistematikoki urratzen jarraitzen duten talde **paramilitarren** (edo BACRIM) iraupena.
- Giza eskubideen urraketa larrien zigorgabetasuna eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak

### Aurrerapenak

Pozik hartzen ditu Kolonbiako erakundeek babesaren arloan aipatu dituzten aurrerapenak, hala nola arrisku kolektiboaren analisia eta, erasandako herriekin batera, mehatxuaren testuinguruari egokitutako protokolo berriak egitea: herri indigenak, giza eskubideen defendatzaileak, emakumeak, kazetariak, LGTBI pertsonak, sindikalistak.

### Gomendioak

Honako hau gomendatzen diegu Kolonbiako erakundeei:

- Carlos Alberto Pedraza Salcedoren desagerpena eta hilketaren arduradun intelektual eta materialak ikertzea eta auzipetzea. Eta poztu egiten gaitu Kolonbiako Prokuradoretza

Nagusiak hartutako konpromisoak, Fiskaltzako giza eskubideen atalari kasu horri buruz bizkortasunez eta zorrotasunez jokatzeko eskatzeko.

- DHOCo kide diren giza eskubideen lau defendatzaileen aurka bahiketa simple eta matxinadagatik hasitako ikerketa behin betiko artxibatzea, kontuan hartuz nekazarien 2013ko mobilizazioetan egin zuten lan humanitarioa eta departamentuko gobernuarekin hitz egiteko egindako lana, zeina Herritarren Defentsa Bulegoak eta NBGEGKBk aitortu baitute.
- Babesteko mekanismoak garatzen jarraitzea arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileentzat. Ildo horretatik, eskertu egiten dugu UNPk babes neurrien jarraipena egiteko eta Babesteko Euskal Programaren pean dauden eta hala eskatzen duten defendatzaileen arrisku-analisiak eguneratzeko izan duen prestutasuna.
- Berme politikoak sustatzea giza eskubideen aldeko lana egiteko, hura ikusaraziz eta balioetsiz, nahiz laguntza, baterako lana eta defendatzaileenganako errespetua indartuz, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan, hura sustatzen eta defendatzen lan egiten duten nazioarteko eta Kolonbiako organismo eta erakundeekin batera.

*Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko programak* babes eta eragin politikorako tresna gisa duen konpromisoa berresten du, giza eskubideen erakundeek euren lana segurtasunez egin ahal izaten laguntzeko. Esparru horretan, Programan parte hartzen duten erakunde publikoek, gizarte erakundeek eta institutu akademikoek zaintzen jarraituko dute eta haren pean jarritako pertsonen eta erakundeen egoeraren jarraipen etengabea egingo dute, arreta berezia jarriz hartutako eta ordezkartzari helarazitako konpromisoari.